EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2030EKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMA

2026 - 2030ERAKO EKINTZA PLANA



ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Dokumentu hau Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programaren 2026-2030erako Ekintza Plana da.

©Ihobe, Urtarrila 2026

Argitaratzailea:

IIhobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Industria, Energia Trantsizio eta Iraunkortasun Saila

Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua
48011 Bilbao

www.ihobe.eus
@ihobe_Eus

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2030EKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMA

AURKIBIDEA

01. SARRERA 4

02. 2026-2030ERAKO EKINTZA PLANAREN ESPARRU ESTRATEGIKOA 6

03. JARDUKETA-EREMUAK ETA -ILDOAK 9

04. 2026-2030ERAKO EKINTZA PLANA 10

- 1. EREMUA 10
- 2. EREMUA 13
- 3. EREMUA 16
- 4. EREMUA 19
- 5. EREMUA 21

05. 2026-2030ERAKO EKINTZA PLANAREN DENBORA-PLANGINTZA 23

06. 2026-2030ERAKO EKINTZA PLANAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK 24

07. GOBERNANTZA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA 25

01.
SARRERA



Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programa erreferentzia-esparrua da sektore publikoaren erosketa-potentziala —eta, modu osagarrian, sektore pribatuarena ere— Euskadiko ingurumen-helburuetarantz aurrera egiteko palanka gisa baliatzeko.

2026-2030erako Ekintza Plan hau programa hedatzeko bost urteko bigarren zikloa da, 2021-2025erako Ekintza Planaren ondorengoa. Plan berri hau aurreko aldiko ondorioetatik eta testuinguru arauemaile eta estrategikoaren bilakaeratik abiatuta taxutu da; halaber, 5 eremu eta 10 jarduketa-ildoren egiturari eusten dio eta aldaketak maila operatiboan kontzentratzen ditu (ekintzak). Hartutako ikuspegiak ekintza gutxi batzuk lehenesten ditu; ekintza horiek inpaktu handikoak, zehatzak eta neurgarriak dira, eta kostu/efizientzia handiagoa lortzera eta programara atxikitzearen balioa sendotzera bideratuta daude.

2021-2025 aldiko ebaluazioak aurrerapen esanguratsuak erakusten ditu erosketa berdea esparru arauemailean ainguratzean eta EAEko administrazioan egitura-elementu gisa sendotzean. Bereziki, aurrerapenak izan dira integrazio juridikoan eta baliabide teknikoen (irizpideak, metodologiak eta zerbitzuak) eskuragarritasunean. Dena den, emaitzek ziklo berrian jorratu beharreko mugak ere uzten dituzte agerian: aurrerapen apalagoak sektore pribatua programaren esparruan erosle gisa sartzean, tokiko mailan ainguratzea indartzeko beharra, dauden konpromisoen baliatu gabeko potentziala eta onurak neurtzeko zailtasunak.

Gainera, Europako eta EAEko arau-testuinguru berriak aurrekaririk gabeko aukerak eskaintzen ditu Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programak 2026-2030 aldian izango duen inpaktua indartzeko. Europar Batasuna (EB) erosketa publikoaren alde egiten ari da *"lead market-ak"* sortzeko tresna gisa, eta deskarbonizazioan eta ekonomia zirkularrean aurrera egitea bultzatzen ari da. Horren bi erakusgarri dira Industria Azeleraziorean etorkizuneko Erregelamendua (horren zirriborroa 2026ko martxoan argitaratu zen) eta Ekonomia Zirkularraren etorkizuneko Erregelamendua; horiek sektore estrategikoetan erosketa publiko berderako nahitaezko betekizunak ezarriko dituzte, eta, hala, eskari publikoa EBren industria- eta klima-helburuekin bat etorriko da. Horri zenbait tresna gehitzen zaizkio (produktuaren pasaporte digitala, esaterako); pasaporte horrek produktuen ingurumen-trazabilitatea, -egiaztagarritasuna eta -konparagarritasuna erraztuko ditu, eta kontratazio publiko berdean irizpide zehatzagoak eta neurgarriagoak txertatzea ahalbidetuko du.

Euskadin, Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legeak aukera gehigarri bat eskaintzen du etorkizunean karbono-aztarna erosketa publikoko prozesuetan txertatzeko. 2026-2030erako testuinguruak aldaketa esanguratsuak dakartza 2021ekoarekin alderatuta. Gainera, Industria Plana-Euskadi 2030 delakoak proiektu eraldatzaile bat du, BasquESG, sektore pribatuan trakzioa errazten duena eta sektore publikorako tresna berriak sortzen dituena. Oro har, arau-garapen horiek esparru sendoagoa eratzen dute, irizpide eta tresna berriak txertatzea ahalbidetzen

dute eta erosketa berdean aurrera egiteko benetako pizgarriak sortzen dituzte.

2026-2030erako Ekintza Planak programaren ikuspegia eta erronkak mantentzen ditu; baina zenbait helburu eta adierazle 2021-2025 aldiko ebidentziara egokitzen ditu, ahalegina emaitzetan zentratzeko.

Aurreko bosturtekoko ikaskuntzak kontuan hartuta, 2026-2030erako Ekintza Planak ardatza atxikimendu formaletik *"emaitzetara bideratutako atxikimendurantz"* lekualdatzen du: ziurtatzea entitate publikoek pizgarri nahikoak dituztela, beren betebeharrak eta konpromisoak ezagutzen dituztela, horiek aplikatzeko laguntza dutela eta aldian-aldian beren jardunaren inguruko itzulketa jasotzen dutela. Modu osagarrian, planak betetzearen zaintza aktiboa jasotzen du, zailtasun handienak dituzten entitateei laguntzeko eta gaitasunak sortzeko, entitate publikoen trakzio-ahalmenaren arabera modulatutako tresnen bidez.

Arau-testuinguru berriaren aukerak ekintza plan honetan txertatzen dira, bai lehentasunezko kategoriak berrikusita eta irizpideak eguneratuta, bai ingurumen-onurak kalkulatzeko tresna berrietan oinarritutako metodologien bidez.

Azkenik, ekintza plan honek balioa ematea indartzen du, entitate publikoek egindako ahaleginak aitortu eta ikusarazteko espazio egonkorrak sortuta.



02.
2026-2030ERAKO EKINTZA PLANAREN ESPARRU ESTRATEGIKOA

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programaren esparru estrategikoa, 2021eko hasierako formulazioan, honako hauek osatzen zuten: 2030erako ikuspegi batek, bost erronkak eta 2025erako eta 2030erako zazpi helburu estrategikok.

2030erako ikuspegia

EAEko sektore publikoaren eta pribatuaren erosketa-potentziala modu bikainean eta merkatuarekin koordinatuta erabiltzea, garapen sozioekonomiko jasangarria lortzeko, eta, aldi berean, ingurumenaren babesa, enpresa-lehiakortasuna eta pertsonen ongizatea areagotzeko Euskadin.

Ikuspegiak baliozkoa izaten jarraitzen du 2026-2030 aldirako, eta 2026-2030erako Ekintza Planaren proposamena gidatu beharko du.

2030erako erronkak

— Erosketa berdea esparru juridiko sendo batean ainguratzea, eta ziurtatzea Euskadiko ingurumen- eta ekonomia-arloko lehentasunezko politikak eta helburuak babesten direla.

— Erosketa publiko berdea finkatzea EAEko administrazio osoan egitura- eta berrikuntza-elementu bihurtuz erakundeetan.

— Erosketa berdea EAEko sektore pribatuan ere ezartzea, haien balio-kateen bidez merkatuaren trakzioan ere badaukaten potentzialagatik.

— Merkatu berdea kalitatezko EAEko eskaintza lehiakor eta prestatu batekin garatzea, arreta berezia jarriz ETEetan.

— Jarraipen-sistemak hobetzea eta kontratazio berdeak Euskadin dituen inpaktuak eta onurak ikusgai egitea.

Erronkek indarrean jarraitzen dute, baina intentsitate-maila desberdinekin. 2021-2025 aldian bereziki aurrera egin da erosketa publiko berdearen ainguratze juridikoan eta egitura-elementu gisa finkatzean, baina aurrerapenak mugatuagoak izan dira sektore pribatua barneratzean eta onuren ebaluazioan. Nolanahi ere, erronka guztiei lotutako potentzialak dago 2026-2030erako Ekintza Planean jorratzeko.

2025 ETA 2030 ERAKO HELBURU ESTRATEGIKOAK (HE)

ADIERAZLEA		2025ERAKO HE	2030ERAKO HE	2025EKO EMAITZAK
1.	Programara atxikitako entitate publikoen kopurua	75	150	40
2.	Programara atxikitako entitate pribatuen kopurua (entitate erosleak)	20	50	2
3.	Garapen jasangarrirako helburua: 12. 7.1. adierazlea	4,0	4,2	3,9
4.	Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan (lizitazio-kopurua)	% 55	%75	% 57
5.	Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan (bolumen ekonomikoa)	% 55	% 75	% 55
6.	Erosketa publiko berdearen ehunekoa kontratazio osoan (lizitazio-kopurua)	% 40	% 60	% 52
7.	Erosketa publiko berdearen ehunekoa kontratazio osoan (bolumen ekonomikoa)	% 40	% 60	% 44

2021-2025erako Ekintza Planaren eta aldi horretako ebaluazio txostenaren emaitzak kontuan hartuta, 2030erako helburu estrategikoak aldatu dira, honela:

— **1., 4., 5., 6. eta 7. helburu estrategikoei eustea.**

— **3. helburu estrategikoa birformulatzea:** Nazio Batuek adierazlea kalkulatzeko metodologiaren bertsio berri bat sortu dute, eta gaur egun emaitza 0tik 100era bitarteko eskala batean dago. Metodologiaren bertsio berri hori hartu dute Eustatek eta gainerako autonomia-erkidegoetako estatistika-organoek. Jatorrizko anbizio-maila bera, eskala berrian, 82ko balioari legokioke.

— **2. helburu estrategikoa kentzea:** 2021-2025 aldian ez da sektore pribaturako atxikimendu-esparrurik sortu. 2025etik aurrera, entitate pribatuak erosle gisa mobilizatzea Industria Plana 2030 delakoaren BasquESG proiektu eraldatzailearen bidez bideratzen da; beraz, ez da beharrezkoa programara atxikimendu osagarririk egitea.

Era berean, aldi berri honetan harmonizatu egin da atxikitako entitate publikoak kontabilizatzeko modua (1. helburu estrategikoa); izan ere, lehen aldian bizikidetza egon da entitate bultzatzaileen eta botere esleitzaileen artean (horiek kontratazio publikoan bi maila desberdin ordezkatzen dituzte).



2026-2030 aldian, atxikitako entitate publikoak atxikitako entitate bultzatzaileen arabera kontabilizatuko dira. Botere esleitzaile bat entitate bultzatzaile bat baino gehiagotara atxikitzen bada eta horiek integratzen baditu, guztiak atxikitzat joko dira. Horrek aldatu egingo luke orain arte jakinarazitako adierazlea, eta 2025ean 89 entitate publiko atxikitara arte igoko luke.

Planteamendu horrekin, 2030erako helburu estrategikoen taula honela geratuko litzateke:

ADIERAZLEA		2025EKO EGOERA	2030EKO EGOERA
1.	Programara atxikitako entitate publikoen kopurua	**89**	**150**
2.	Garapen jasangarrirako helburua: 12. 7.1. adierazlea	**74**	**82**
3.	Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan (lizitazio-kopurua)	**% 57**	**% 75**
4.	Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan (bolumen ekonomikoa)	**% 55**	**% 75**
5.	Erosketa publiko berdearen ehunekoa kontratazio osoan (lizitazio-kopurua)	**% 52**	**% 60**
6.	Erosketa publiko berdearen ehunekoa kontratazio osoan (bolumen ekonomikoa)	**% 44**	**% 60**

03. JARDUKETA-EREMUAK ETA -ILDOAK

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programa, 2021eko hasierako formulazioan, 5 eremutan zegoen antolatuta, eta eremu horiek 10 jarduketa-ildotan hedatzen ziren.

Jarduketa-eremu eta -ildo horien formulazioa programaren esparru estrategikoari erantzuten jarraitzeko bezain zabala da. Horregatik, 2026-2030erako Ekintza Plan honetan mantendu egiten dira, eta aldaketak plangintzaren maila zehatzenean zentratzen dira: ekintzetan.

2026-2030erako Ekintza Planerako ekintzen planteamendua honako premisa hauetan oinarritu da:

— Kopuru aldetik ekintza gutxi, baina kostu/efizientzia hobetzeko inpaktu handikoak.

— Ekintza zehatzak eta neurgarriak.

— 2021-2025erako Ekintza Planaren ebaluazioari erantzuten dioten eta honako hauetan zuzenean ekarpena egiten duten ekintzak:

- Erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak txertatzean.
- 2023ko martxoaren 7ko 1/2023 Jarraibidea eta Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programako konpromisoak betetzen direla ziurtatzean.
- Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programara atxikitzeak duen balioa handitzean.



04.
2026-2030ERAKO EKINTZA PLANA


1. EREMUA

Erosketa eta kontratazio berdea finkatzea Euskadiko politiken hedapenerako funtsezko tresna gisa

Erosketa berdea funtsezko palanka da ingurumen-, klima- eta industria-helburuetarantz aurrera egiteko, Europako Batzordeak Industria Garbiaren aldeko Itunean aitortzen duen bezala.

Euskadiko entitate publikoen esparru juridiko eta operatiboan hori integratzea sustatzeak lizitazioetan ingurumen-klausulak txertatzeko pizgarri bat bermatuko du. Osagarri gisa, beharrezkoa da lizitazioak bultzatzen dituzten entitateei tresna sendoak eskaintzea —ingurumen-irizpide gisa—, Euskadiko ingurumen-politikaren lehentasunekin bat datozenak.

2026-2030erako Ekintza Planak eremu hau indartzen du, Euskadiko gobernu-maila guztietan erosketa publikoa sendotzera eta erosketa publikoa Euskadiren helburuen zerbitzura jartzera bideratutako jarduketen bidez.



LA01	EAEko sektore publiko osoaren esparru politiko eta juridikoan erosketa berdeak tresna operatibo gisa duen eginkizuna indartzea
GAUZATZAILEA	**INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA**
LAGUNTZA	**OGASUN ETA FINANTZA SAILA**

2021-2025 aldiko ebaluazioak aurrerapen esanguratsuak erakusten ditu erosketa publiko berdea esparru arauemailean ainguratzean, bereziki Eusko Jaurlaritzaren eremuan; bertan, haren aplikazioa indartzen duten lege-erreferentziak eta nahitaezko tresnak finkatu dira. Hala ere, analisiak agerian uzten du, halaber, beharrezkoa dela ainguratze hori sektore publikoko beste maila batzuetan zabaltzea eta indartzea, bereziki tokiko administrazio publikoan, bai eta erosketa berdea Euskadin garatzen diren esparru juridiko eta estrategiko berrietan txertatzea sistematizatzea ere.

Testuinguru horretan, jarduketa-ildo honen helburua da erosketa berdearen aintzatespena eta eraginkortasuna indartzea politika publikoen egitura-tresna gisa, eta prestatzen ari diren araudi, plan eta estrategietan hura garaiz eta koherentziaz txertatzen dela ziurtatzea. Eredu sistematikoago baterantz aurrera egin nahi da, non erosketa berdea behin eta berriz txertatuko den lurraldeko ingurumen-, klima- eta ekonomia-helburuen zerbitzura dagoen tresna gisa.

Horretarako, ildoak planteatzen du, alde batetik, prozedura egonkor bat ezartzea garatzen ari diren eta erosketa publiko berdearen irizpideak txerta ditzaketen EAEko araudi eta plangintzak identifikatu eta horien gainean jarduteko, eta, hala, programaren lehentasunak politika publikoko tresna berrietara modu eraginkorrean helaraztea ahalbidetzea. Bestalde, tokiko administrazio publikoari ingurumen-jasangarritasunarekiko duen konpromisoa indartuko duten tresna juridikoetarako irispidea erraztera bideratuta dago, eta erosketa berdea modu formalean haren prozedura operatiboetan txertatzea sustatzen du. Bigarren ekintza hori toki-entitateekin osatutako lantalde baten bidez garatuko litzateke.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
1.1 Euskadiko araudi eta plangintza berrietan EPBa txertatzea proposatzea	**Araudien eta plangintzen kopurua**	**2**

Sistematika bat ezartzea, honako hauek barne hartuko dituena: hasierako garapen-faseetan EPBaren irizpideak txerta ditzaketen Euskadiko araudi eta plangintza berriak identifikatzea, eta EPBaren irizpideak txertatzeko proposamenak sortzea.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
1.2 Toki-entitateentzako ereduzko jarraibidea garatzea	**Jarraibidea onartzen duten udalerrietako biztanleria**	**500.000**

Ekintza honetatik espero den emaitza izango litzateke ereduzko jarraibide bat garatzea, toki-entitateek modu errazean onartu eta egokitu ahal izango dutena, bai eta hura ezartzeko laguntzea ere. Horretarako, lantalde bat planifikatzen da dauden toki-entitateen sareen esparruan, ereduzko jarraibidearen zirriborro baten testua adosteko, pilotaje bat egiteko eta azken testu bat sortzeko balioko duena. Funtsezko aurrekari gisa, 2021-2025 aldian, Udalsarea 2030en toki-eremuan erosketa eta kontratazio berdea bultzatzeko ibilbide-orriak garatu eta ezartzeko laguntza-materialak zehaztu ziren.

LA02	Ziurtatzea erosketa berdea bat datorrela Euskadiren ingurumen- eta ekonomia-lehentasunekin
GAUZATZAILEA	**INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA**

Euskadiko, Europar Batasuneko eta munduko testuingurua aldatu egin da 2021ean Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programaren esparruan egindako ingurumen-lehentasunen azterketatik. Europako Lehiakortasun Iparrorratzak eta Industria Plana-Euskadi 2030 delakoak enfasi handiagoa jarri dute zenbait gaitan (esaterako, materialen autosufizientzian edo klima-zaurgarritasuna murriztean). Gainera, arau-esparru berriak erosketa berdean aplikazio ugari dituzten hainbat tresna eskaintzen ditu (esaterako, produktuaren pasaporte digitala, karbono-intentsitatearen etiketak edo produktu eta zerbitzuen karbono-aztarna), eta horiek aprobetxatu egin behar dira. Gai eta tresna berriak erosketa publiko berdearen irizpideetan txertatu behar dira, haien potentzial osoa aprobetxatzeko eta eskariaren seinale publikoaren eta sortzen ari diren erronka estrategikoen arteko desorekak saihesteko.

Jarduketa-ildo honen helburua da bermatzea Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programak, 2026-2030 aldian zehar, etengabe eta proaktiboki bat egiten duela lurraldeko ingurumen-, klima- eta industria-lehentasunekin, bai eta Europako arau-esparruaren eta esparru estrategikoaren bilakaerarekin ere.

Europako eremuan, beraz, beharrezkoa izango da Europar Batasuneko Industria Garbiaren aldeko Ituna kontuan hartzea, barne hartuta bai lehendik dauden plangintza eta araudia (adibidez, Produktu Jasangarrietarako Ekodiseinuaren Erregelamendua), bai etorkizunekoak (adibidez, Industria Azelerazioaren etorkizuneko Erregelamendua edo Ekonomia Zirkularraren etorkizuneko Erregelamendua).

Eremu autonomikoan, ingurumen-, klima- eta industria-esparruak honako hauek barne hartzen ditu, besteak beste: Industria Plana-Euskadi 2030 delakoa; Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea; Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legea; eta Euskadiko Energia Estrategia 2030 delakoa.

Ildoak, beraz, bi lan-eremu osagarri konbinatzen ditu: alde batetik, lehentasunezko kategorien zerrenda eguneratzea, baliabide publikoak trakzio-ahalmen handiena duten eremuetarantz bideratzeko; eta, bestetik, kategoria horiei lotutako ingurumen-irizpideak eguneratzea eta hobetzea, bizi-zikloaren ikuspegia eta ingurumenari buruzko informaziorako eta komunikaziorako tresna berriak sistematikoki txertatuz.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
2.1 Lehentasunezko kategorien zerrenda eguneratzea	**Eginda / Egin gabe**	**Eginda**

Ekintza honetan, lehentasunezko kategoriak berrikusiko dira; berrikuspen hori EPBak Euskadiko nahiz Europar Batasuneko ingurumen-, klima- eta industria-politiken helburuei ekarpenak egiteko duen gaitasunean oinarrituko da. Ekintza plan honetan gutxienez behin egin beharreko azterketa izango da, eta haren emaitza izango da lehentasunezko kategoria berriak gehitzeko eta dauden lehentasunezko kategoriak mantendu edo kentzeko proposamen bat. Analisiak honako hauek barne hartuko ditu: EPBak ekarpenak egin diezazkiekeen berariazko helburuen identifikazioa, EPBaren bidezko inpaktu-gaitasuna, eta Euskadirentzat lehiakortasunaren arloan duen interesa.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
2.2 Dauden irizpideak eguneratzea, bizi-zikloaren ikuspegia eta legegintza-tresna berriak integratuz	**Eguneratu edo garatutako kategoria kopurua**	**15**

Ekintza honetan berrikuspen sakon bat egingo da lehentasunezko kategorien (2.1 ekintzan zehaztutakoak) irizpideak ingurumen gardentasuneko tresna berrietara egokitzeko (esaterako, produktuaren pasaporte digitalera, karbono-aztarnara edo BasquESG ziurtagirietara). Era berean, bizi-zikloaren ikuspegia aplikatzen dela ziurtatuko da. Lehentasunezko kategoria berriak identifikatuz gero, irizpide berriak garatu beharko dira. Irizpideak sakon aldatzea edo irizpide berriak sortzea interes-taldeekin kontrastatuko da, 7.1 ekintzaren esparruan.

2. EREMUA

EAEko sektore publikoak eta enpresa sektoreak erosketa eta kontratazio berdearekin duten konpromisoan aurrera egitea

2021-2025 aldiko ebaluazioak berresten du programak oinarri operatiboa eta aintzatespen tekniko esanguratsua finkatzea lortu duela; hala ere, egiturazko muga bat ere agerian uzten du: benetako ezarpena (beste faktore batzuen artean, programarekiko atxikimendu kopuruarekin lotuta dagoena) ez da espero zen erritmoan hazten ari. Bestalde, nolabaiteko ziurgabetasuna dago atxikitako entitateen konpromisoen eta 2023ko martxoaren 7ko 1/2023 Jarraibideko betebeharren betetze-mailari buruz.

Programarekiko atxikimenduei dagokienez, 2026-2030erako planteamenduak ardatza atxikimendu formaletik *"emaitzetara bideratutako atxikimendura"* eramaten du: ziurtatzea entitateek pizgarri nahikoak dituztela, beren betebeharrak ezagutzen dituztela, horiek aplikatzeko laguntza dutela eta aldian-aldian beren jardunaren inguruko itzulketa jasotzen dutela.

Jarraibideko betebeharrak betetzeari dagokionez, 2026-2030erako Ekintza Planak zaintza aktiboa jasotzen du, horiek aplikatzean arazoak dituzten entitateei laguntzeko.

Bestalde, sektore pribatuaren mobilizazioa BasquESG ekimenaren bidez bideratzen da, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programara atxikitzeko berariazko esparrurik sortu gabe. BasquESG delakoak EAEko hornidura-kateen trakzioa sortzea ahalbidetuko du, eta, aldi berean, ETEek ingurumen-gardentasunean egindako kudeaketa sinplifikatuko du, eta jasangarritasunaren arloan duten jarduna hobetzeko pizgarri bat sortuko du.



LA03	EAEko sektore publiko osoak parte hartzea lortzea

GAUZATZAILEA **INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA**


Jarduketa-ildo honen helburua da EAEko sektore publikoak erosketa berdearekin duen benetako konpromisoa indartzea, dauden esparruak ahalik eta gehien aprobetxatuz (esaterako, 2023ko martxoaren 7ko 1/2023 Jarraibidea edo programara atxikitzearekin hartutako konpromisoak berak). Ziurtatu nahi da, entitate publikoek beren betebeharrak eta konpromisoak ezagutzeaz gain, beren jardunari buruzko informazio argia eta beren kontratazio-prozesuetan ingurumen-irizpideak benetan txertatzen aurrera egiteko pizgarri egokiak dituztela.

Ildo horretan, EAEko administrazio publikoaren pleguen azterketa sistematiko baten inguruan egituratzen da ildoa, adimen artifizialak lagunduta, jarraipenerako eta aktibaziorako tresna nagusi gisa. Ikuspegi horrek aukera ematen du ingurumen-klausulen txertatze-maila ebaluatzeko, jarraibidearen eta programako konpromisoen betetze-maila balioesteko, entitate bakoitzari buruzko bereizitako informazioa emateko haien jardunari buruz, eta kontrataziotik ingurumen-jasangarritasunari ekarpenak egiteko potentzial handia duten entitateak identifikatzeko.

Informazio hori guztia erabiltzen da bai laguntza teknikoa indartzeko, bai kostu/efizientziaren ikuspegia aplikatuz trakzio-gaitasun handiena duten entitate eta lizitazioetan ahaleginak lehenesteko.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
3.1 Jarraibidearen eta programako konpromisoen betetze-maila sistematikoki ebaluatzeko mekanismoak ezartzea	**Ezarritako mekanismoak, urteko ebaluazioarekin**	**BAI/EZ**

Ekintza honetan, esleitutako pleguen azterketa integratua egingo da urtero. Horrek balioko du ebaluatzeko, batetik, 2023ko martxoaren 7ko 1/2023 Jarraibidea haren irismen-eremuan dauden entitateek betetzen duten, eta, bestetik, atxikitako entitateek konpromisoak eta haien jarduna betetzen dituzten. Azterketa horrek, halaber, entitate bultzatzaileak segmentatzeko balioko du; eta hori baliagarria izango da programako laguntza-mekanismoak haien beharretara egokitzeko eta balio bereziko atxikimenduak sustatzeko. Ekintza honen ondorioz, berariazko komunikazioak egingo dira jarraibidea edo programako konpromisoak betetzen ez badira, atxikitako botere esleitzaileentzako urteko informazio-fitxak sortuko dira erosketa publiko berdean egiten duten jardunari dagokionez, eta entitate bultzatzaileen segmentazioa izango da atxikimenduen urteko plan bat bideratzeko.



LA04	Sensibilizar y movilizar a las empresas vascas

GAUZATZAILEA **INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA**

2021-2025 aldiko ebaluazioak agerian uzten du programa ez dela tresnarik egokiena izan enpresa pribatuen mobilizazioa erosle-rolean zuzenean antolatzeko, eta horrek mugatu egin duela haren irismena eremu horretan.


Horregatik, 2026-2030 etapa berri honetan, EAEko enpresen sentsibilizazioa eta mobilizazioa BasquESG ekimenaren hedapenaren bidez gauzatuko da. Industria Plana-Euskadi 2030 delakoaren proiektu eraldatzaile bat da, enpresen kudeaketan ingurumen, gizarte eta gobernantza oneko irizpideak txertatzea bultzatzera bideratua, berariazko arreta jarriz EAEko ekoizpen sarearen (batez ere ETEen) errealitatean. Proiektua jasangarritasuna ebaluatzeko eta jakinarazteko sistema propio baten inguruan egituratzen da (sistema hori ETEentzako Europako estandarrarekin —VSME— bat dator); eta proiektuak EAEko enpresa eragile handien eta finantza entitateen lidergoa du (horiek beren balio-kateetan arraste eragile gisa jarduten dute).

BasquESG delakoak aukera ematen du erosketa publiko berdearen logikaren antzeko logika bat eremu pribatura zabaltzeko; eta laguntzen du enpresek modu progresiboan ingurumen-irizpideak txerta ditzaten beren erosketa-prozesuetan, programako ziurtagirien bidez. Proiektu horren bidez, enpresek beren erosketen ingurumen-jarduna ebaluatzeko eta hobetzeko esparru komun bat dute, eta, aldi berean, bat egiten dute merkatuaren, Europako araudiaren eta enpresa eragile handien eskakizun berriekin.

Horrela, BasquESG delakoak Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren gainerakoaren zati osagarri gisa jarduten du, eta haren eragin sistemikoa indartzen du: sektore publikoak aurrera egiten du bere lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzean, eta seinale argiak bidaltzen ditu merkatura; sektore pribatuak, berriz, BasquESG delakoaren bidez, antzeko irizpideak txertatzen ditu bere balio-kateetan, eta EAEko ekonomia osoan jasangarriagoak diren erosketa-ereduetarantz pixkanaka bateratzea bultzatzen du. Era berean, Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren bidez, BasquESG sustatu ahal izango da, kontratazio publikoan ziurtagiriaren erabilera sustatuz.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
4.1 BasquESG ekimena hedatzen laguntzea, enpresa eragile handiekin eta finantza entitateekin lankidetzan	**BasquESG ekimeneko ETEen kopurua**	**1.000**

Ekintza honetan, ikuspegi publikotik, BasquESG ekimenaren hedapena babestuko da. Hasiera batean, ekimen hori sektore pribatuan trakzioa eragiteko funtsezko tresna gisa planteatu zen. Laguntza horren ardatza izango da BasquESG ziurtagiria erosketa publiko berderako balizko tresnatzat hartzea, ingurumen-irizpideetan sartuz zentzua duenean, eta hura sektore publikoan erabiltzea bultzatuz dibulgazioaren bidez.




3. EREMUA

Erosketa eta kontratazio berdea erakundeetako egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea

Muga teknikoa eta operatiboa 2021-2025erako Ekintza Planaren hedapenean identifikatutako oztopo nagusietako bat da: ingurumen-jasangarritasuna irizpide zehatz eta egiaztagarri bihurtzeko ezagutza espezializaturik ez duten entitateak. Horri gehitu behar zaio giza baliabideen eta denboraren eskasia, bereziki entitate txikietan, non kontratazio-taldeak oso estu baitaude.

Beste oztopo bat da sektore bakoitzari egokitutako erreferentzia eta tresna praktikorik eza, eta horrek zaildu egiten du irizpideak sistematikoki aplikatzea. Oztopo horiek gainditzeko, laguntza teknikoa, etengabeko prestakuntza eta segurtasun juridikoa eta operatiboa emango duten tresna homogeneoak behar dira.

2026-2030erako Planak eremu hau indartzen du *“instalatutako gaitasunaren”* ikuspegi esplizituarekin: atxikitako entitateei ingurumen-irizpideak aplikatzea erraztuko duten eta emaitzak areagotuko dituzten zerbitzuak eta tresnak ematea.



LA05	Ezarpen sistematiko eta estrategikorako baliabideak ematea
GAUZATZAILEA	**INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA**

2021-2025 aldiko ebaluazioak agerian uzten du entitate publikoei eskainitako laguntza teknikoa funtsezko faktorea izan dela kontratazioan ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesuan aurrera egiteko. Hala ere, laguntza horiek indartzeko eta modu estrategikoagoan kudeatzeko aukera ere agerian uzten du azterketak, entitatearen trakzio-potentzialaren arabera.

Hori dela eta, 2026-2030 aldirako, funtzionatu duten tresnei eustea planteatzen da (esaterako, ingurumen-irizpideak txertatzeko eta zalantzak argitzeko zerbitzuari, edo joeren txostenei), eta atxikitako entitateek eskatutako tresna berriak sortzea (esaterako, ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesuan laguntza estrategiko eta pertsonalizatua, plegu bikainen biltegia edo Euskadiko erosketa publiko berdeari buruzko urteko txosten teknikoa).

Helburua da ahalegin publikoaren inpaktua maximizatzea, laguntzak ingurumen-onura handiena sortzen duten eremuetan kontzentratuz (bereziki lizitazio handietan, erosle handietan eta lehentasunezko kategorietan).

Horretarako, ildoak ikuspegi osagarriak dituzten bi ekintza uztartzen ditu. Alde batetik, pleguetan ingurumen-irizpideak txertatzeko zerbitzua indartzen du hurbileko laguntza teknikorako tresna gisa, ingurumen-irizpideak modu eraginkorrean aplikatzea erraztera eta erakundeetan gaitasunak sortzera bideratua. Bestalde, berrikuntzaren eta efizientziaren aldeko apustu irmoa egiten du, adimen artifiziala laguntza-tresnetan txertatuz, zeregin errepikakorrak automatizatzea eta erosketa berdea ezartzeari lotutako kostuak murriztea ahalbidetuko dutenak.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
5.1 Atxikitako entitate publikoentzako pleguetan ingurumen-irizpideak txertatzeko zerbitzua indartzea	**Lagundutako lizitazioen M €**	**60**

Pleguetan ingurumen-irizpideak txertatzeko zerbitzua izan da 2021-2025ean balio handieneko laguntza atxikitako entitateentzat. Ekintza plan berri honetan ingurumen-irizpideak modu orokorrean txertatzeko zerbitzua mantentzen da; eta informazioaren teknologia berriekin indartzen da, haren kostu/efizientzia hobetzeko. Gainera, 3.1 ekintzaren esparruan egindako entitate bultzatzaileen segmentazioa aprobetxatuz, baldintza jakin batzuk betetzen dituzten entitate edo lizitazioentzat ingurumen-irizpideak txertatzeko zerbitzu pertsonalizatu bat sortuko da. Ingurumen-irizpideak txertatzeko zerbitzu pertsonalizatu berri horrek, entitate interesdunak eskatuta, laguntza hurbilagoa eta sakonagoa ahalbidetuko du, bai pleguetan bai plegu-ereduetan ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesuan aplikatzeko, nazioarteko kasu arrakastatsuetan oinarrituta.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
5.2 Adimen artifizialean oinarritutako laguntza tresna berriak diseinatzea	**Diseinatutako eta AAean oinarritutako laguntza tresnen kopurua**	**2**

Adimen artifiziala politika publikoen kostu/efizientzia hobetzeko aprobetxatu beharreko aukera da. Ekintza plan honetan AAean oinarritutako gutxienez bi tresna garatzea planteatzen da. Lehenengo tresnak aukera emango luke 3.1 ekintzan planteatutako pleguen azterketa integratua modu erdiautomatikoan egiteko. Horretarako, urtean 6.000 plegu inguru aztertu behar dira hainbat ikuspegitatik. Bigarren tresna pleguetan ingurumen-irizpideak txertatzea erraztera bideratutako tresna izango litzateke. Diseinuan, bi interfazerekin planteatzen da: alde batetik, chatbot motako tresna gisa, atxikitako entitateentzat zein atxiki gabekoentzat berariazko zalantzak argitu ahal izango dituena; eta, bestetik, atxikitako entitateentzat web-ean oinarritutako premium tresna gisa, plegu batean ingurumen-irizpideak hutsetik txertatzeko aukera emango duena eta teknikari batek berrikusteko prozesu bat barne hartuko duena.

LA06	Erosketa eta kontratazioaren eginkizuna profesionalizatzea inplikatutako langile guztiengan
GAUZATZAILEA	**OGASUN ETA FINANTZA SAILA**
LAGUNTZA	**INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA**


2021-2025 aldiko ebaluazioak agerian uzten du erosketa berdearen kalitatea eta homogeneotasuna baldintzatzen duten faktore nagusietako bat inplikatutako langileen trebakuntza-maila dela.

Jarduketa-ildo honen helburua da erosketa berdearen eginkizunaren profesionalizazio egonkor baterantz aurrera egitea, ziurtatuz beharrezko gaitasunak erakunde publikoetan modu estrukturalean txertatuta daudela eta ez direla murrizten langileen txandatzearekin edo antolaketa-aldaketekin. Kontratazio-prozesuetan esku hartzen dutenen ezagutza teknikoa eta estrategikoa indartzea da helburua, programaren helburuekin bat datorren aplikazio zorrotzagoa eta homogeneoagoa erraztuz.

Horretarako, programara atxikitako sektore publikoarentzat gaitasunak sortzeko urteko programa bat finkatzea planteatzen du ildoak. Gaitasunak sortzeko programa lehendik dauden prestakuntza-sistemekin koordinatuta egituratuko da (esaterako, IVAPekin), eta benetako kasuetan aplikatutako tailer praktikoen bidez indartuko da. Prestakuntza ez da soilik sentsibilizazio-tresna gisa ulertzen; jarraibidea benetan betetzen dela ziurtatzeko eta kontratazioaren ingurumen-jarduna hobetzeko tresna operatibotzat ere hartzen da, bereziki lehentasunezko kategorietan.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
6.1 Atxikitako sektore publikoarentzat gaitasunak sortzeko urteko programa bat ezartzea	**Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua**	**400**

2021-2025 aldian, IVAPek erosketa publiko berdeari buruzko ikastaro bat diseinatu zuen, 2023ko martxoaren 7ko 1/2023 Jarraibidearen eraginpeko entitateentzat. 2026-2030 aldian, ikastaro hori Euskadiko sektore publiko osoari eskainiko zaio. Gainera, entitate publikoen trebakuntza tailer praktikoekin osatuko da, eta horietan benetako pleguekin egingo da lan. Tailer praktiko horien plangintza urtero egingo da 3.1 ekintzan egindako segmentazioan oinarrituta. Eta bi osagai izango ditu: lehenengoa, atxikitako entitate guztiei irekitako tailerrak, berariazko kategoria bat lantzeko; eta bigarrena, ad hoc tailerrak, baldintza jakin batzuk betetzen dituzten entitate atxikientzat.



4. EREMUA

Merkatu egokia, kalitatezkoa eta prestatua izatea

Erosketa publiko berdeak eraldaketa sortzen du soilik merkatuak irtenbide lehiakor eta egiaztagarriekin erantzun badezake; bestela, oztopo bihurtzen da tokiko lehiakortasunerako, eta entitate bultzatzaileak lizitazio hutsen beldur izatea eragiten du.

Euskadin erosketa publiko berdearen ibilbidea nazioarteko erreferente bihurtu da merkatua inplikatzeko eta mobilizatzeko duen gaitasunagatik. Jardunbide egokia da, mantendu beharrekoa.

Horregatik, eremu honetan honako hauek sartzen dira: batetik, merkatuarekin elkarrizketa mantentzea erosketa publiko berdeko irizpide teknikoen diseinuan, konkurrentzia bermatzeko; eta, bestetik, EAEko hornitzaileak trebatzea, irizpide horiek merkatu publikoan sartzeko oztopo izan ez daitezen.

LA07	Merkatuarekin elkarrizketa eta lankidetza sustatzea, irtenbide berritzaileagoak, jasangarriagoak eta lehiakorragoak aurkitzeko
GAUZATZAILEA	**INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA**

Programaren ziklo berriaren diagnostikoak eta 2021-2025eko ebaluazioak agerian uzten dute kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak txertatzeak tentsioak sor ditzakeela, merkatuarekiko elkarrizketa egokirik gabe egiten bada. Kategoria jakin batzuetan kontrasterik ez izateak betetzeko zailak diren betekizunak, egiaztapen-arazoak edo konkurrentzia txikiaren arriskuak eragin ditzake, erosketa publiko berdearen benetako inpaktua mugatuz; halaber, EAEko hornitzaileen lehiakortasunean inpaktua sor dezake.

Jarduketa-ildo honen helburua da arrisku horiek murriztea eta erosketa berdearen anbizio teknikoa handitzea, irizpideak garatzeko eta eguneratzeko prozesuetan merkatuarekin kontraste sistematiko eta egituratu baten bidez. Horrela, ingurumen-betekizunen aplikagarritasuna hobetu nahi da, eragile ekonomikoen konfiantza indartu, eta ziurtatu eskari publikoaren seinaleak benetan laguntzen duela eskaintzaren berrikuntzan eta ingurumen-hobekuntzan.

Ildo hau bereziki garrantzitsua da 02. jarduketa-ildoak markatutako testuinguru batean. Bertan, lehentasunezko kategoriak eta dauden irizpideak sakon berrikusiko dira, Euskadiko ingurumen-politikaren beharrei erantzuteko eta gardentasun-tresna berrietatik eratorritako aukerak aprobetxatzeko.

Merkatuarekiko elkarrizketa horren helburua ez da eskakizun-maila jaistea, baizik eta irizpideen argitasuna, egiaztagarritasuna eta bideragarritasuna hobetzea, merkatuko eragileen ezagutza eta esperientzia txertatuz.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
7.1 Irizpideak garatu eta eguneratzean interes-taldeekin kontrastea ziurtatzea	**Interes-taldeekin kontrastatutako irizpideen %**	**% 100**

Irizpide berriak garatzeak edo daudenak eguneratzeak interes-taldeekin, publiko edota pribatuekin, kontrastea egitea eskatzen du, Euskadiren lehiakortasunean eragin negatiborik ez sortzeko. Ekintza honetan sartzen da kontraste hori. Kontrasteak sistematikoki egingo dira, honako hauek barne hartuko dituen prozesu batean: interes-taldeak identifikatzea, planteamendu teknikoa bidaltzea, iruzkinak jasotzea, gutxienez lan-saio bat bateratzea, eta azken dokumentua sortzea.

LA08	Enpresa hornitzaileen gaitasunak indartzea, kontratazioaren ingurumen-betekizunei erantzuteko
GAUZATZAILEA	**INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA**

2021-2025 aldiko ebaluazioak eta Ihobek garatutako ingurumen-zaintza estrategikoaren txostenek erakusten dutenez, enpresa-sarearen zati batek (ETEek bereziki) zailtasunak ditu merkatuaren ingurumen-eskariei modu egokian erantzuteko (dela bere balio-kateari dagokionez, dela erosketa publikoari dagokionez). Zailtasun horiek lotuta daude prestakuntza teknikorik ez izatearekin, tresnarik ez izatearekin edo merkatuak harmonizatu gabeko estandarrak erabiltzearekin.

Jarduketa-ildo honen helburua enpresa hornitzaileen gaitasunak indartzea da, administrazio publikoen ingurumen-eskarietara pixkanaka eta eraginkortasunez egokitu ahal izan daitezen, merkatu publikoan nahiz pribatuan lehiakortasunerako palanka gisa. Kontua da merkatua prestatzea ingurumen-arloan gero eta zorrotzagoa den eskariari erantzuteko.

Lehendik dauden programa eta egituretan oinarritzen da ildoa, hala nola gaitasun zirkularrak garatzeko Eusko Jaurlaritzaren ekimenetan. Eusko Jaurlaritzak, 2022tik aurrera, berariazko programa bat eskaintzen du jardunean dauden profesionalei prestakuntza emateko. Prestakuntzaren helburua da enpresei tresna praktikoak ematea hainbat arlotan (esaterako, bizi-zikloaren ikuspegian, ingurumen-metrikak erabiltzean eta ebidentzia egiaztagarriak sortzean). Horrela, enpresek errazago parte hartuko dute metrika horiekin lotutako klausulak dituzten kontratazio publikoko prozeduretan eta sektore pribatuko lizitazioetan.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
8.1 Enpresa hornitzaileen prestakuntza, gaitasunak sortzeko Eusko Jaurlaritzaren ekimenen bidez	**Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua**	**700**

Ekintza honen emaitza izango da enpresa hornitzaileak tresna esanguratsuetan trebatzea, erosketa publiko berdearen testuinguruan beren lehiakortasuna hobetzeko. Prestakuntza-programa hori Eusko Jaurlaritzak sektore pribaturako ingurumen-arloko gaitasunak garatzeko abian jarritako ekimenetan sartuko da. Prestakuntza-programaren orientazio egokia “Ingurumen-irizpideen aplikazioa” txostenean oinarrituko da. Txosten horretan, lehentasunezko kategoria bakoitzerako sektore publikoak gehien erabiltzen dituen klausulak aztertuko dira. Txosten hori 3.1 ekintzan planteatutako pleguen azterketa integratuaren informaziotik abiatuta sortuko da.

5. EREMUA

Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea

2021-2025 aldiko ebaluazioak zeharkako behar bat identifikatzen du: pizgarriak hobetzeko beharra, entitate publikoek erosketa publikoan ingurumen-irizpideak txerta ditzaten.

3. jarduketa-ildoan jasotako konpromiso politikoaz haratago, beste pizgarri argi bat da erosketa publiko berdearen bidez lortutako lorpenak aitortzea eta horiei balioa ematea.

Onuren kalkulua funtsezko bihurtzen da erosketa publiko berdeak ingurumen-, klima- eta industria-politikei egiten dien ekarpena ebaluatzeko eta komunikatzeko.

Halaber, beharrezkoak dira espazio egonkorrak, entitate publikoek egindako ahaleginak aitortu eta ikusgarri egiteko, motibazioa mantendu eta pizgarri gehigarriak sortuko dituztenak.

Eremu hau programaren sinesgarritasunaren eta etengabeko hobekuntzaren eragile gisa planteatzen da, onurak neurtzeko tresnak eta komunikazio estrategikoa zein kanpo-posizionamendua uztartuz.

LA09	Ingurumenarekiko jasangarria den erosketaren eta kontratazioaren ezarpena neurtzea eta onurak kalkulatzea
GAUZATZAILEA	**INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA**

2021-2025 aldiko ebaluazioak agerian uzten du muga esanguratsuak daudela haren emaitzak eta onurak modu sistematikoan neurtzeko gaitasunean. Datuen eskuragarritasunari, kalitateari eta egokitasunari lotutako zailtasunek, bai eta pleguetan jasotako irizpideak inpaktu egiaztagarri bihurtzeko konplexutasun metodologikoari lotutakoek ere, mugatu egin dute orain arte kontuak ematea eta sortutako balioa ikusaraztea.

Jarduketa-ildo honen helburua da programaren kudeaketaren jarraipenean oinarritutako ikuspegi batetik erosketa publiko berdearen onurak pixkanaka eta modu sendoan zenbatestea ahalbidetuko duen eredu baterantz eboluzionatzea. Helburua da programari tresna batzuk ematea (deskarbonizazio-helburuei, ekonomia zirkularreko helburuei eta industria-arloko helburuei egiten dien benetako ekarpenaren irakurketa argiagoa erraztuko dutenak), eta, horrela, haren legitimitatea eta erabakiak hartzea bideratzeko duen gaitasuna indartzea.

Horretarako, ildoak ikuspegi pragmatiko eta eskalagarria hartzen du, anbizio teknikoaren eta bideragarritasun operatiboaren arteko oreka bilatzen duena, eta, aldi berean, arau-esparruak epe ertainera eskainiko dituen tresnak baliatzen ditu (esaterako, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legean ezarritako karbono-aztarna kalkulatzeko derrigortasuna, edo Eraikuntzako Produktuen Erregelamenduari eta Produktu Jasangarrien Erregelamenduari lotutako pasaporte digitalak).

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
9.1 EPBaren onurak neurtzeko tresna bat sortzea eta ezartzea	**Eginda / Egin gabe**	**Eginda**

Ekintza honen helburua da Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programaren onurak neurtzeko sistema bat izatea, urtero emaitzak sor ditzakeena. Horretarako, lehenengo urratsa zaintza-txosten bat egitea izango da, erosketa publiko berdean aurreratuen dauden gobernuetako jardunbide onenak identifikatzeko. Txosteneko ondorioetatik abiatuta, jarraitu beharreko metodologia zehaztuko da, pilotatu egingo da eta eskalatu egingo da neurketa-sistema ezarri arte.

LA10	Euskadiren ikusgarritasuna eta posizionamendua indartzea barne mailan, Europa mailan eta nazioarte mailan

GAUZATZAILEA **INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA**

2021-2025 aldiko ebaluazioak adierazten duenez, erosketa publiko berdearen aurrerapen teknikoarekin eta operatiboarekin batera, beharrezkoa da haren emaitzen komunikazioa eta haren ezarpena bultzatzen ari diren esperientzien eta entitateen aintzatespena indartzea. Aurrerapenak eta lorpenak ikusaraztea funtsezko palanka da erakundeen konpromisoa indartzeko, elkarrekiko ikaskuntza bultzatzeko eta Euskadik erosketa berdearen arloan erreferentziazko lurralde gisa duen posizionamendua sendotzeko.

Jarduketa-ildo honen helburua da programaren balio estrategikoa areagotzea, komunikazio egituratuagoaren eta emaitzetara bideratuaren bidez, bai barne-eremuan bai kanpo-eremuan. Alde batetik, atxikitako entitateentzako onura indartu nahi da, jardunbide egokiak zabalduz eta ahalegin nabarmenak aitortuz; eta, bestetik, EAEko esperientzia proiektatu nahi da Europako eta nazioarteko espazioetan, ezagutza lortzeko, aliantzak sortzeko eta erakundeen ospea indartzeko.

Hala, ildoak bi dimentsio osagarri konbinatzen ditu. Barne mailan, urteko foro bat sortzea bultzatzen da, ikusarazteko, trukatzeko eta aintzatesteko espazio gisa, esperientzien hedapena errazteko eta kontratazioan ingurumen-irizpideak sartzea bizkortzeko. Hori joerei buruzko sei hilean behingo txostenekin osatuko da (horiek Ihoberen ingurumen-zaintza estrategikoaren sistemari lotuta daude). Kanpo eremuan, Euskadik sare, foro eta plataforma espezializatuetan parte-hartze aktiboa izatea sustatzen da, ikaskuntzarako eta proiekzio estrategikorako mekanismo gisa.

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
10.1 Nazioarteko erreferentzia sortzea	**Parte hartzen den nazioarteko foroen kopurua**	**5**

Nazioarteko erreferentziaren sorrera bi bideren bidez lortuko da. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak hizlari gisa parte hartuz erosketa publiko berdearen inguruko ekitaldietan; eta, bestetik, nazioarteko sareetan parte-hartze teknikoa izanez (esaterako, ICLEIren Procura + sarean).

EKINTZA	ADIERAZLEA	2030ERAKO HELBURUA
10.2 Urtero foro bat egitea erosketa publiko berdearen arloan	**Egindako foroen kopurua**	**4**

Foro hori urterokoa eta aurrez aurrekoa izatea aurreikusita dago; eta atxikitako entitateen erreferentzia-puntu bihurtu beharko da, programaren aurrerapenak eta esparru estrategikoan izandako aldaketak ezagutzeko, jardunbide egokiak partekatzeko eta jardun onena duten entitateak aintzatesteko. Aintzatespena tresna berri batekin osatzen da: plegu bikainen biltegia, 3.1 ekintzaren azterketa integratuan zehar identifikatutako eta beren berrikuntza edo anbizio mailagatik gainerako entitate publikoentzat eredu bihur daitezkeen pleguek osatua.

05.
2026-2030ERAKO EKINTZA PLANAREN DENBORA-PLANGINTZA

ESPARRUA	JARDUKETA-ILDOA	EKINTZA	2026	2027	2028	2029	2030
1. Erosketa eta kontratazio berdea indartzea, Euskadiko politikak hedatzeko funtsezko tresna gisa	1.I Erosketa berdeak duen zeregina indartzea euskal sektore publiko osoaren esparru politiko eta juridikoan tresna operatibo gisa.	1.1 Euskadiko araudi eta plangintza berrietan CPV sartzea proposatzea.					
		1.2 Udalerri eta toki-erakundeentzako eredu-jarraibidea garatzea.					
	2.I Erosketa berdea Euskadiko ingurumen- eta ekonomia-lehentasunekin bat egiten duela bermatzea.	2.1 Lehentasunezko kategorien zerrenda eguneratzea, Euskadiren eta Europaren egungo lehentasunen arabera.					
		2.2 Lehentasunezko kategorietan dauden irizpideak eguneratzea, bizi-zikloaren ikuspegia aplikatuz eta ingurumen-komunikazioko lege-tresna berriak integratuz (adibidez, PDP).					
2. Euskal sektore publikoak eta pribatuak erosketa eta kontratazio berdearekin duten konpromisoan sakontzea	3.I Euskal sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea.	3.1 Programako instrukzioa eta konpromisoak betetzen direla sistematikoki ebaluatzeko mekanismoak ezartzea.					
	4.I Euskal enpresak sentsibilizatzea eta mobilizatzea.	4.1 BasquESG Ekimenaren hedapena babestea, enpresa eragile handiekin eta finantza-erakundeekin lankidetzan.					
3. Erosketa eta kontratazio berdea egitura -eta berrikuntza-elementu bihurtzea erakundeetan	5.I Inplementazio sistematiko eta estrategiko baterako baliabideak ematea.	5.1 Atxikitako erakunde publikoentzako baldintza-orrietan ingurumen-irizpideak txertatzeko zerbitzua indartzea.					
		5.2 AAn oinarritutako laguntza-tresna berriak diseinatzea.					
	6.I Erosketaren eta kontratazioaren funtzioa profesionalizatzea inplikatutako langile guztiengan.	6.1 Gaitasunak sortzeko programa bat ezartzea urtero atxikitako sektore publikorako.					
4. Merkatu egokia, kalitatezkoa eta prestatua izatea	7.I Merkatuarekin elkarrizketa eta lankidetza sustatzea, irtenbide berritzaileagoak, jasangarriagoak eta lehiakorragoak aurkitzeko.	7.1 Irizpideak garatzean eta eguneratzean interes-taldeekiko kontrastea ziurtatzea.					
	8.I Enpresa hornitzaileak, batez ere ETEak, kontratazioaren ingurumen-eskaerei aurre egiteko prestatzea.	8.1 Eusko Jaurlaritzak gaitasunak sortzeko dituen ekimenen bidez enpresa hornitzaileak prestatzea.					
5. Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea	9.I Ezarpena neurtzea eta ingurumenaren aldetik jasangarriak diren erosketen eta kontratazioaren onurak balioestea.	9.1 CPVaren onurak neutzeko tresna bat sortzea eta ezartzea.					
	10.I Euskadik egindako aurrerapenak eta lorpenak barne-mailan, Europan eta nazioartean ezagutarazi eta sustatzea.	10.1 Nazioarteko erreferentzia sortzea.					
		10.2 Erosketa publiko berdeari buruzko foro bat egitea urtean behin.					

06.
2026-2030ERAKO EKINTZA PLANAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK

2026-2030erako Ekintza Plana lortzeko behar diren baliabide ekonomiko guztiak 2030eko Erosketa eta Kontratazio Publikoko Programan ezarritakoekin bat datoz, ekintza bakoitzeko honako banaketa honekin:

eurotan (€)

ESPARRUA	JARDUKETA-ILDOA	EKINTZA	2026-2030	2026	2027	2028	2029	2030
1. Erosketa eta kontratazio berdea indartzea, Euskadiko politikak hedatzeko funtsezko tresna gisa	1.I Erosketa berdeak duen zeregina indartzea euskal sektore publiko osoaren esparru politiko eta juridikoan tresna operatibo gisa.	1.1 Euskadiko araudi eta plangintza berrietan CPV sartzea proposatzea.	**10.000**	2.000	2.000	2.000	2.000	2.000
		1.2 Udalerri eta toki-erakundeentzako eredu-jarraibidea garatzea.	**10.000**	5.000	5.000	0	0	0
	2.I Erosketa berdea Euskadiko ingurumen- eta ekonomia-lehentasunekin bat egiten duela bermatzea.	2.1 Lehentasunezko kategorien zerrenda eguneratzea, Euskadiren eta Europaren egungo lehentasunen arabera.	**5.000**	5.000	0	0	0	0
		2.2 Lehentasunezko kategorietan dauden irizpideak eguneratzea, bizi-zikloaren ikuspegia aplikatuz eta ingurumen-komunikazioko lege-tresna berriak integratuz (adibidez, PDP).	**120.000**	0	30.000	40.000	40.000	10.000
2. Euskal sektore publikoak eta pribatuak erosketa eta kontratazio berdearekin duten konpromisoan sakontzea	3.I Euskal sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea.	3.1 Programako instrukzioa eta konpromisoak betetzen direla sistematikoki ebaluatzeko mekanismoak ezartzea.	**113.500**	25.000	22.000	19.500	19.500	27.500
	4.I Euskal enpresak sentsibilizatzea eta mobilizatzea.	4.1 BasquESG Ekimenaren hedapena babestea, enpresa eragile handiekin eta finantza-erakundeekin lankidetzan.	**0**	0	0	0	0	0
3. Erosketa eta kontratazio berdea egitura -eta berrikuntza-elementu bihurtzea erakundeetan	5.I Inplementazio sistematiko eta estrategiko baterako baliabideak ematea.	5.1 Atxikitako erakunde publikoentzako baldintza-orrietan ingurumen-irizpideak txertatzeko zerbitzua indartzea.	**159.000**	34.000	35.000	30.000	30.000	30.000
		5.2 AAn oinarritutako laguntza-tresna berriak diseinatzea.	**45.000**	32.000	10.000	3.000	0	0
	6.I Erosketaren eta kontratazioaren funtzioa profesionalizatzea inplikatutako langile guztiengan.	6.1 Gaitasunak sortzeko programa bat ezartzea urtero atxikitako sektore publikorako.	**75.000**	15.000	15.000	15.000	15.000	15.000
4. Merkatu egokia, kalitatezkoa eta prestatua izatea	7.I Merkatuarekin elkarrizketa eta lankidetza sustatzea, irtenbide berritzaileagoak, jasangarriagoak eta lehiakorragoak aurkitzeko.	7.1 Irizpideak garatzean eta eguneratzean interes-taldeekiko kontrastea ziurtatzea.	**24.000**	0	8.000	10.000	4.000	2.000
	8.I Enpresa hornitzaileak, batez ere ETEak, kontratazioaren ingurumen-eskaerei aurre egiteko prestatzea.	8.1 Eusko Jaurlaritzak gaitasunak sortzeko dituen ekimenen bidez enpresa hornitzaileak prestatzea.	**39.500**	8.000	8.000	8.000	8.000	7.500
5. Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea	9.I Ezarpena neurtzea eta ingurumenaren aldetik jasangarriak diren erosketen eta kontratazioaren onurak balioestea.	9.1 CPVaren onurak neutzeko tresna bat sortzea eta ezartzea.	**50.000**	15.000	20.000	10.000	2.500	2.500
	10.I Euskadik egindako aurrerapenak eta lorpenak barne-mailan, Europan eta nazioartean ezagutarazi eta sustatzea.	10.1 Nazioarteko erreferentzia sortzea.	**14.000**	2.000	4.000	2.000	4.000	2.000
		10.2 Erosketa publiko berdeari buruzko foro bat egitea urtean behin.	**25.000**	5.000	5.000	5.000	5.000	5.000
		GUZTIRA	**690.000**	**148.000**	**164.000**	**144.500**	**130.000**	**103.500**

4.1 ekintzaren aurrekontua 2.2, 6.1 eta 7.1 ekintzetan sartzen da.

07. GOBERNANTZA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programan ezarritako jarraipen eta gobernantza eskema 2026-2030erako Ekintza Plan berri honetan mantentzen da.

Gobernantzan bi maila bereizten dira:

— **Sailarteko taldea:** Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak eta Ogasun eta Finantza Sailak osatzen dute, eta Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoari dagokio idazkaritza teknikoa. Sailarteko taldearen eginkizuna da programa bultzatzea eta gidatzea, honako hauek barne: urteko jarraipen-txostenak eta bost urteko ebaluazio-txostenak prestatu eta aztertzea, 2026-2030erako Ekintza Plana egitea eta urteko lan-planak egitea. Talde hau gutxienez urtean behin biltzen da.

— **Euskadiko Erosketa Publiko Berdearen Batzordea:** sailarteko taldeak, foru aldundiek, EAEko hiriburuetako udalek eta Udalsarea 2030ek osatua. Programaren eta haren ekintza-planen hedapen koordinatuari laguntzea du eginkizun, eta, horretarako, bi urte eta erdian behin biltzen da, 3 mugarrirekin lotuta: (1) 2026-2030erako Ekintza Plana abiaraztea; (2) 2026-2030erako Ekintza Planaren tarteko puntua; eta (3) Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programaren azken ebaluazioa.

Gainera, Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak **programaren idazkaritza tekniko** gisa jarraitzen du. Honako hauek dira bere eginkizunak: programaren gobernantza-taldeak dinamizatzea eta ekintza-planetan zehaztutako ekintza zehatzak nola gauzatzen diren gainbegiratzea.

2026-2030erako Ekintza Planaren jarraipena urteko jarraipen-txostenen bidez egingo da (horiek 2021-2025 aldian egindakoen jarraipena izango dira). Txosten horietan, honako hauek jasoko dira: ekintza-planean aurreikusitako jarduketen aurrerapen-maila, funtsezko helburu estrategikoen lorpenean izandako progresioa eta urteko lan-planerako gomendioak.

2030ean, urteko jarraipen-txosten horren ordez programaren ebaluazio-txosten bat egingo da. Txosten hori kanpoko erakunde batek egingo du, gardentasun-, partaidetza- eta lankidetza-irizpideak kontuan hartuta. 2030eko ebaluazio-txostenari esker, erosketa berdearen arloan plangintza berri baten beharra dagoen identifikatu ahal izango da.

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD